



EUSKALGINTZAREN
KONTSEILUA

URTEKO IRAKURKETA
ETA ONDORIOAK



Izenburua: Kontseiluaren urteko irakurketa eta ondorioak

Egilea: Euskaalgintzaren Kontseilua

Argitaratze-data: 2020ko abenduaren 15a

Ale kopurua: argitalpen digitala (www.kontseilua.eus atarian eskuragarri)

1 SARRERA 04

2 COVID-19a 06

3 HERRI-GOGO INDARTSUA 14

4 HIZKUNTZA-POLITIKAK 2020an 18

5 ONDORIOAK 24

03

2
0
2
0




SARRERA

Laugarren urtez, Kontseiluak euskararen normalizazio prozesuaren inguruko gertakarien urteko irakurketa egin du, bai eta ondorioak dokumentu batera ekarri ere. Eta bada, noski, egin beharreko lehen oharra. Izan ere, zaila da 2020ko urteko irakurketan COVID-19ak eragindako gertaerak eta horren eraginpean ez daudenak banatzea.

Mundua dantzan jarri duen pandemiak Euskal Herria ere dantzan jarri du. Gizartearen sektore ahulenei gehiago kolpatu dien pandemiak hizkuntza ahulei, gutxituei, gehiago kolpatu die. Hartara, aurtengo irakurketan COVID-19ak atal berezitua du, izan ere, ezin dira ulertu urtea bera edota etorkizuneko erronkak testuinguru honek utzi dizkigun aztarnak kontuan hartu gabe.

Aurreko urteetan bezala, urtean zehar hizkuntza-normalizazioaren inguruan izan diren gertaera nagusiei buruzko laburpena egin nahi izan dugu. Gainera, hizkuntza-



Joxe Mari Auzmendi



Joan Mari Torrealdai

normalizazioa bere dimentsio sozialean eta politikoan landu dugu; hizkuntza-politikek zer eman duten aztertzeaz gain, herri-gogoak zein jardun izan duen jorratu dugu.

2019ko azaroaren 15etik 2020ko azaroaren 20ra bitartean izandako gertaerak azertu ditugu. Ohiko moduan, uste dugu zinez garrantzitsua dela urtero geldialdi txiki bat egitea iragan hurbilak utzitakoari erreparatu, eta etorkizuna definitzeko. Helburu hori bete nahi du honako dokumentu honek.

Eta zurrunbilo honen guztiaren barruan ezin dugu ahaztu Kontseiluaren zutabe izan ditugun bi lagunek utzi gaituztela. Biak ala biak Kontseiluaren sorreran ibilitakoak, biak ala biak ondoan izan ditugunak, biak ala biak herrigintzan sinesten zutenak. Horrexegatik, urteko irakurketaren lehen lerroetan gogora ekarri nahi ditugu bidaide izan ditugun Hik Hasiko Joxe Mari Auzmendi eta Jakineko Joan Mari Torrealdai. Izan zaretelako, izango dira.

2 COVID-19a

EGOERA

COVID-19ak mundu osoa astindu du, guztion zaugarritasuna eta interdependentzia agerian utziz. Are gehiago, krisiak zaugarrienak kolpatu ditu larrien, eta sistema ez da gai izan erantzun egoki bat emateko: bere gabeziak eta ahuldadeak biluzik utzi ditu. Baita hizkuntza-eskubideei dagokienez ere.

2020ko martxoaren 25ean, Europako herri askotan itxialdirako deia indarrean jarriko zela zabaldu, eta pandemiak izango zuen hedapenaz ohartu bezain pronto, COMEXeko lehendakariak, Europako Kontseiluko Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuneko Adituen Batzordeko lehendakariak, gomendioak helarazi zizkien estatuei. Herritarren ongizatea bermatzeko, osasun-zerbitzuak eta segurtasun-jarraibideak berezko hizkuntzetan ere zabaltzea izan zen emandako aholkua. Hurrengo egunetan etorri ziren ESLatik zein NBetik antzeko gomendioak.

Kontseiluak gomendio horiekin bat egin eta hedatzeaz gain, konpromisoa hartu zuen, Hizkuntz Eskubideen Behatokiarekin batera, itxialdia hasi eta bi hilabetera egoerari buruzko txosten bat bidaltzeko Estrasburgora.

Egia da, bai, herritarren kexa ugari zabaldu zirela martxotik uztaile bitartean hizkuntza-eskubideen urraketei dagokienez. Izan ere, berehalakotasunaren eta lehenetasunen izenean, hizkuntza-komunitate gutxiagotuetako kideok ikusi

genuen nola zapaldu zituzten gure eskubideak.

Horri lotuta, aipatzeko modukoak dira, Behatokiak ekainaren 12an zabaldutako datuak: alarma-egoera hasi zenetik ekainaren 1era arte COVID-19ari lotutako 205 kexa jaso zituen, iaz garai berean baino %47 gehiago. Euskal Autonomia Erkidegoko Arartekoak ere berariaz agertu zuen kexa urriaren 28an. Zerbitzu publiko batzuetan euskaraz artatua izateko eskubidea ez zela bete salatu zuen Arartekoak, eta gogora ekarri zuen herritarrek aukera izan behar dutela nahi duten hizkuntza ofizialean hitz egiteko.

KOMUNITATEA

Egoera hori izanik ere, ezin albo batera utzi komunitateak testuinguru honetan jokatu duen papera, bai eta jasan dituen ondorioak ere. Aurkia eta ifrentzua.

AURKIA

Esaldi batera ekar dezakegu herri-gogoaren edo herri-ekimenaren jarrera: ez du etenik izan.

Informazio-egarria sortu zen testuinguruan, hor dugu, esaterako, euskarazko herri-ekimeneko hedabideek jokatu duten funtzioa. Gertuko informazio erreala euskaraz izateko egindako esfortzua azpimarratzeko modukoa dela iruditzen zaigu, eta, nola ez, horrek lotura zuzena izan du produktu horien erabiltzaile kopuruaren gorakadan.

Behategiak plazaratutako datuen arabera, itxialdian, oro har, hazi egin zen komunikabideen kontsumoa: denok etxean egon behar izan genuen arren, paperak eutsi eta kasu batzuetan apur bat gehiago saltzea ere lortu zuen; irrati eta telebisten kontsumoak ikaragarri hazi ziren, eta hedabideen online atariek inoizko datu onenak eskuratu zituzten 2020ko martxoan. Kontsumo mediatikoa gehien hazi den hilabetea, martxoan, Hekimen elkarteko hedabideen trafikoaren hazkundea %60koa izan zen. Hilabete bakarrean, 1,4 milioi erabiltzaile izan zituzten euskarazko hedabideek, 4 milioi saio pasa, eta 9 milioi orrialde ikustaldi.

Helduen euskalduntzean ere, ikustekoa izan zen euskaltegietako komunitateak

egoerari azkar eta egoki erantzuteko erakutsi zuen gaitasuna, bai eta testuinguru berriari egokitzekoa ere, beharrezko aldaketa guztiak aurrera eramanez. Beti ere, itxialdiak eta pandemiak berak ikasleen euskalduntze-prozesuan ahalik eta gutxien eragiteko helburuarekin. Hezkuntzan ere antzera aritu da komunitatea, bai eta hezkuntza ez-formalean ere.

Zer esan kulturaren eremuan diziplina desberdinetako sortzaileek egindako ekarpenaz. Itxialdian bertan komunitatea zaintzeko hainbat kultur emanaldi, sorkuntza-lan, bertso-saio... herritarren eskura jarri zituzten doan. Eta, itxialdia amaituta, beharrezko osasun- eta segurtasun-neurriak hartuta, eta ondorioz, beharrezko egokitzapen guztiak eginda, jarraitu dute komunitatea elikatzen. Hor dugu, adibide gisa, Durangoko Azokak egindako apustua.



Durangoko Azokaren 55. edizio bereziaren kartela

Ezin ahaztu, gainera, herrietako zaintza-sareetan hizkuntza erdigunera ekartzen egindako saiakera; besteak beste, hain denbora luzean euskararekin inolako loturarik izango ez zuten haur eta gaztetxoei euskarazko saiok eskaintzeko.

Eta ezin aipatu gabe utzi komunitatea trinkotzeko *Etxealditik Euskaraldira* ekimena. Elkar ikustea, besarkatzea, edo ukitzea ia ezinezkoa zitzaigun unean, inoiz baino ageriago gelditu zen elkarren beharra genuela. Horregatik, etxean genituenekin zein, teknologien bitartez, kanpokoekin, etxealdian elkarrekin komunikatzeko eta hitz egiteko urratsa

eman genuen, dela lagun, nola ezagun zein ezezagunekin.

IFRENTZUA

Dena den, herri-gogo indartsu hori izan arren, egokitzapenerako aukerarik ez zuen ekimenik ere izan da, eta erabaki gogorrak hartu behar izan dira hainbat ekintzaren bueltan.

Alde batetik, hor ditugu hezkuntzaren eremuan antolatzen diren ikastoletako zein eskola publikoaren aldeko jaiak. Alde ekonomikoaz haratago, komunitatearen handitasuna erakusteko hitzordu garrantzitsuak dira, zalantzarik gabe.



Ikastolen aldeko bost jaiak bertan behera gelditu dira



Mendilorrin zen egitekoa 2020an Sortzenek bultzatutako jaiak



Bastidan zen egitekoa EHIGek antolatutako jai nagusia



2021eko udaberrian egitekoa zen Korrika, baina lekukoa ez da eskuz esku pasatuko 2022 arte


Euskal kulturgintzaren ardatz diren bertso-txapelketak atzeratu behar izan dira. Bide beretik, kultur emanaldiak ere atzeratu behar izan dira, edo, bestela, baldintza makurragoetan eskaini. Durangoko Azokak aurrez aurreko formatua alboratu behar izan du, nahiz eta kulturaren bihotzak taupadak egiten dituela erakusteko ahaleginari eutsi.

Eta, nola ez, sareetan izandako oihartzuna kontuan hartuta, argi dago komunitatearen bihotzean benetako zartakoa eragin zuela AEK-k Korrika urte batez atzeratu beharra azaldu izanak.

Izan ere, komunitatearen izaerari, komunitatea izatearen pertzepzioari ekarpena egiten dieten ekimenez ari gara

Halaber, izan ditugu pandemiaren ondorioz edo, hobeki esanda, pandemiaren ondorioek egoera ahula areagotu dutelako, beste hainbat kezka-iturri: Plateruenaren

itxiera, kultur eragileek agertutako datuak, euskarazko liburugintzak bizi duen egoera...



17 urteren ostean, Plateruenak behin betiko itxiko ditu atearak

Bide beretik, ezin aipatu gabe utzi euskararen normalizazio-prozesuan ardatza den hezkuntzaren sektorean bizi dugun egoera. Izan ere, ikasleek derrigorrezko

hezkuntza amaitutakoan eskuratzen dituzten hizkuntza-gaitasunekiko kezka areagotzen ari diren honetan, hainbat hilabetez euskararekin inolako harremanik ez izateak ondorio kaltegarriak eragin dituela azpimarratu da azken asteotan.

Ezjakintasuna bilakatzen ari da errealitatearen jaun eta jabe. Oraindik ez dago argi bizi dugun krisi-testuinguru honek aipatutako eremuez landa, bestelakoetan zer nolako eragina izango duen: dela sozioekonomikoan, dela aisialdian... Horregatik, etorkizuna modu bateratuan irudikatzea lagungarria izango da.

AURRERA BEGIRA:

GEROA EUSKARATIK

Itxialdia hastearekin batera, etengabeko harremanari ekin zion Kontseiluak euskalgintzan diharduten hamarnaka

eragilerekin, bazkide izan zein ez.

Harreman horietatik guztietatik zenbait ondorio garrantzitsu atera genituen. Lehenik eta behin, zoritxarrez, ez ginela halako egoeran geunden eta gauden bakarrak. Iruditzen zitzaigun lehendik zetozen bestelako bazterketa eta eskubide-urraketak areagotu egin zirela krisiarekin. Horregatik, gure ertzetik, beste ertz eta bazter guztiekiko begirunea erakustea beharrezkotzat jotzen genuen. Elkarrekiko enpatia eta zaintza ezinbestekoak genituela begi-bistan geratu zen, eta, horregatik, inoiz baino beharrezkoagoa zela komunitate eta sare sendoak osatzea. Elkar zainduko zutenak, elkar hartuz.

Horrekin batera, krisi guztiek aldeztu aurretik idatzita ez dauden aldaketak ekarri ohi dituztela aipatzen genuen. Eta oraingoan ere hala izan zitekeela.



Geroa Euskaratik dinamikaren irudi eta leloa



Geroa Euskaratik adierazpena aurkeztu osteko argazkia, Donostian

12

Eta geuk ere aldaketa horien eragile izan nahi genuela ondorioztatu genuen. Gure ertzetik, eta berdintasunaren eta demokraziaren izenean, dagozkigun eskubideak ere erdigunera ekarri behar direla esan genuen: geroa euskaratik ere eraiki behar dela, bertakotzen, gerturatzen eta saretzen laguntzen duen transmisio uhala delako euskara.

Are gehiago, Kontseiluaren ustez guztion eskubideak bermatzeko zubia ere bada euskara. Hortaz, ziurgabetasunez betetako etorkizunaren aurrean, berdinzaleagoa, kohesionatuagoa eta eskubideen bermean oinarritutako etorkizun berri baten aldeko apustua egiteko unea zela ondorioztatu

genuen.

Idea horiek guztiak *Geroa Euskaratik* izeneko adierazpenean bildu zituen Kontseiluak. Gainera, sektorez sektore euskalgintzako eragileekin egindako lanketan egoera berriari erantzungo dioten neurriak zehaztu genituen, eta horiek ere bildu genituen aipatutako dokumentuan.

Ekainaren 23an Kontseiluko bazkideen ordezkaritza zabal batek dokumentuaren berri eman zuen Donostian, eta alderdi politikoetako zein instituzioetako ordezkariekin bilera erronda egiteari ekin zitzaion.

Halaber, azaroaren 10ean Kontseiluko bazkideen ordezkaritza batek, segurtasun-neurriei zorrotz jarraitzeko seikotea oraingoan, bigarren agerraldia egin zuen. Kasu honetan, bi noranzkotan egin zen eskaera. Batetik, herritarrei gogorarazi zitzaien zein garrantzitsua zen eskura genituen ekimenetan parte hartzea eta nork bere burua aktibatzea; bestetik, erakundeei gogorarazi zitzaien zein garrantzitsua den neurriak hartzea. Finean, normalizazio-prozesuaren dimentsio sozial eta politikoa mahai gainerratu nahi izan zen.



Geroa Euskaratik dinamikaren baitan, azaroan Bilbon egindako agerraldia

3

HERRI-GOGO INDARTSUA

Aurreko puntuan jaso dira herri-ekimenaren hainbat adibide. Halere, egia da COVID-19aren eraginpetik harago izan direla herri-gogo indartsua erakutsi duten beste hainbat jardun.

Euskarazko irakaskuntzaren aldarriak kaleak bete ditu Iruñean eta Baionan. Lehenean, euskarazko irakaskuntzari jartzen ari zaizkion oztopoak salatzeke. Esaterako, Iruñeko Udalak haur eskoletako eskaintza murriztean edota Nafarroako Gobernuak D ereduko lerro berriak zabaltzeko aukera oztopatzean. Bigarrenean, Hiriburuko eskola publikoan euskarazko murgiltze-ereduaren esperimentazioak jasotako debekua salatzeke. Zorionez, bigarren honetan presio sozialak erabakia aldaraztea ahalbidetu zuen.

Aurten ere, eta baldintza oso berezietan, Errigora izan dugu. Gainera, antolatzaileek *Agerraldia* izeneko dinamika aurkeztu dute Nafarroako hegoaldean euskara susatzeko. Esan behar dugu oso pozgarria izan dela emaitza; finean, marka guztiak hautsi eta

inoizko salmentarik onenak eskuratu dituzte.

Beste urte batez, agerian geratu da hizkuntza gutxituen alde lan egiten duten eragileen lankidetzaren sendoa garrantzia; horren adibide da 2020ko otsailean aragoieraren, asturieraren, euskararen, galizieraren eta katalanaren alde lan egiten dugun gizarte eragileok aurkezpen bateratua egin izana Madrilen, Diputatuen Kongresuan. Konpromisoa eskatu genien alderdiei gure eskubideak bermatuko dituen marko juridikoa eraikitzeke.

Halaber, atal honetara ekarri nahi izan dugu ertz desberdinetako eragileek lankidetzaren berri bati hasiera eman izana. Horrela, Giza Eskubideen Nazioarteko Egunean, abenduaren 10ean, eskubide desberdinen urraketen eremuan lan egiten duten zenbait eragilek elkarrekin jarduteko borondatea erakutsi zuten, agerraldi bateratuan. Hurrenez hurren, euskaldunon hizkuntza-eskubideen, etorkinen



Hizkuntza gutxituen alde lan egiten duten eragileen ordezkariak, Madrilen

eskubideen, emakumeen eskubideen eta LGBTBIQ+ pertsonen eskubideen alde lan egiten duten Behatokia, OEE, Bilgune Feminista eta Harro elkarteek hartu zuten parte.

Esparru desberdinetako eragileen aliantzaren eredua ere bada Kontseiluak ELA eta LAB sindikatuekin garatutako dinamika lan munduaren euskalduntzeari begira. Urrian hiru erakundeetako idazkari nagusiek agerraldi bateratua egin zuten hurrengo asteetan garatuko den eskaera baten berri emateko; hain zuzen ere, Confebaski eta CEN Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioari proposatuko zaie 50 langiletik gorako enpresa guztietan euskara-planak negoziatuko direla jasotzen duen akordio interprofesionala hitzartzea.

Izan da, bestalde, sektore zehatz batek eskaera batekin garatutako ekimenik ere. Horrela, abuztuan, 350 kazetari euskaldunek baino gehiagok sailburu eta arduradun euskaldunak izendatzeko eskatu zioten Jaurilaritza osatu behar zuen arduradun nagusiari. Sinatzaileen arabera, kazetarien arteko elkarrizketa informaletan

sumatzen zen halako haserre puntu bat, ezerosotasun puntu bat; batik bat, ikus-entzunezko hedabideetan. Izan ere, ezin izaten dituzte irrati-estudio batean edo telebista-plato batean elkarrizketatu, besteak beste, euskaraz ez dakiten kargu publikoak. Esaldi batera ekarri zuten haien aldarria: euskaraz hitz egingo duen Jaurilaritza zor zaio euskal kazetaritza profesionalari. Euskaraz hitz egingo duen Jaurilaritza zor zaie herritarrei.

Bestalde, izan da euskaraz bizitzeko hautua egiten duten herritarrei hori errazteko tresnak eskaini dizkienik ere. Besteak beste, ni.eus euskarazko postaren plataforma, *Euskara Eskuz Esku* egitasmoa, euskarazko bozgorailu adimendun Mycroft.eus-a, *Lanabes* lan-ataria...

Azkenik, ezin aipatu gabe utzi hausnarketarako tarte egon dela urte berezi honetan. Aurten ere erakutsi da zer hausnartu eta zer partekatua badagoela hizkuntzaren normalizazio-prozesuan.

Hor ditugu Topalabek argitaratutako gogoetak, edota gure hizkuntzaren egoeraz, orainaz eta etorkizunaz jarduteko urtean



Garbiñe Aranburu (LAB), Paul Bilbao eta Mitxel Lakuntza (ELA), Bilbon egindako agerraldi bateratuan

zehar antolatutako hainbat jardunaldi: *Topaldia, Udaltop, Euskara eta feminismoa, Euskal Soziolinguistika Jardunaldia 2020: Nerabe eta gazteen hizkuntza errealitatea, Entitate pribatuak: nola eman zerbitzua euskaraz herritar eleaniztunei?, Euskararentzako estrategia digitalaren bila Europari begira, Gazteak euskararen eremuan kontzientziazteko topaketak...* eta, nola ez, Kontseiluak eta Eusko Jaurlaritzak lankidetzan antolatutako *Euskararen herria euskal hiztun. Ezagutzaren unibertsalizazioari buruzko jardunaldiak*.

Halaber, ikaskuntzari dagokionez, ikasturte honetan abian jarri dira Kontseiluak, UEMAk, UEUK eta EHUK lankidetzan garatutako Eragin Linguistikoaren Ebaluazioaren (ELE) unibertsitate aditu titulua; EHUK eta UEUK elkarlanean antolatutako Hizkuntzen Kudeaketa Osasun Arretan graduondokoa, UEUK antolatutako Irakasleen Prestakuntza Unibertsitate Masterra etab.

EUSKARALDIA

Baldintza desegokietan etorri da euskararen inguruan komunitateak egiten duen ariketa erraldoia. Halaber, egia da aurtengoak bazuela ariketak berez duen helburuaz gain, beste bat: komunitatea sendotzea eta trinkotzea.

2018ko *Euskaraldiak* bezalaxe, oraingoan ere hizkuntza-portaerari egokitutako *ahobizi* eta *belarriprest* rola izan ditu aukeran herritarrak. Edizio honetan, gainera, *ariguneak* txertatu dira ariketan.

Mota guztietako entitateek hartu ahal izan dute parte (erakunde publikoak, gizarte eragileak, enpresak, kooperatibak, kultur eta kirol elkarteak, eta abar), *ariguneren* bat badute. *Ariguneek*, edo euskaraz aritzeko guneek, euskaraz hitz egiteko aukera bermatzen dute uneoro, izan entitate barruan edo izan entitateak herritarrekin duen harremanean. Talde hauetako kideek *ahobizi* eta *belarriprest* modura jardun dute *Euskaraldiak* iraun duen 15 egunetan, baina ariketa modu kolektiboan gauzatu dute ariguneetan.

Azken datuen arabera, 179.780 pertsonak eman dute izena 2020ko *Euskaraldian*. Horietatik, %77 *ahobizi* eta %23 *belarriprest*. Horiekin batera 25.000 *arigune* baino gehiago eratu dira. Halaber, garrantzitsua da azpimarratzea *Euskaraldiaren* antolaketaaren bueltan ehunka batzorde eratu direla 421 udalerritan.



Euskaraldiaren bigarren edizioaren kartela

4

HIZKUNTZA-POLITIKAK 2020an

Lehenik eta behin, aipatu behar da **Europako Kontseiluak** eta **Nazio Batuen Erakundeak** Hego Euskal Herrian aplikagarriak diren zenbait gomendio argitaratu dituztela denbora tarte honetan.

Eskualde edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna Espainiako Estatuan aplikatzeari buruzko bosgarren txostena eta gomendioak argitaratu zituzten Adituen Batzordeak eta Ministroen Batzordeak. Estatuko agintariek Europaren gomendioak bete behar dituztela berretsi zuten. Izan ere, Kontseiluak gaitzetsi zuen lehen ebaluaziotik datozen gomendioak oraindik bete gabe egotea, ez eta betetzeko asmoa izatea ere.

Halaber, Nazio Batuen Erakundearen Gutxiengoen Aferetarako Kontalariak txosten berezia argitaratu zuen, eta bertan, Kontseiluak NBEko Kontalariari agertutako kezka nagusiak islatu ziren: Botere Judizialaren Lege Organikoaren 231. artikulua aldatzeko gomendia, hizkuntza-ereduen inguruko ebaluazioa egiteko gomendia...

Halako gomendioak jasotzen ziren bitartean, **Auzitegiek esku hartze politikekin jarraitu** dute, oro har, hizkuntza gutxituen alde hartutako neurri eragingarriak auzitan jartzen eta legez kontraktatzat jotzen.

Horren adibide da **Auzitegi Gorenak ekainean argitaratutako epaia**, zeinaren arabera, euskara diru laguntzetarako irizpide izatea ezetsi zuen. EAEko Espainiako Gobernu ordezkariak 2017ko martxoan Lasarte-Oriako Udalak onartu

zuen ordenantzaren kontra helegitea aurkeztu zuen. EAEko Auzitegi Nagusiak udalaren alde ebatzi zuen epaia, ordea. Hala ere, Auzitegi Gorenera eraman zuen auzia Espainiako Abokatu Gorenak, eta udalaren kontra ebatzi du Gorenak, euskaraz ez dakitenen aurkako berdintasun printzipioa urratzen dela argudiatuta. Kontseiluak azaldu zuenez, udalak irizpide hori ezartzeko justifikazio objektiboa eta arrazoizkoa baliatu zuen – bidenabar, eta Eskualde edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunak jaso bezala, egoera gutxituan dagoen hizkuntzaren aldeko neurriak hartzea ezin da diskriminaziotzat jo-. Hartara, eremu ez-formalak hizkuntzaren normalizazio-prozesuan duen garrantziaz ohartuta erabaki dute, Kontseiluaren aburuz, euskarazko jarduerak lehenesten duen araudia bertan behera uztea.

Beste maila batean, eta Nafarroari dagokionez, epaileek zenbait lanpostutan ezarritako hizkuntza-eskakizunak baliogabetu dituzte. Hala nola, Zizur Nagusian, Berriobeitin, Antsoainen eta Berriozarren.

Espainiako Estatuari dagokionez, ezin aipatu gabe utzi Diputatuen Kongresuan azaroaren 19an onartutako hezkuntza-legea, **LOMLOE** izenekoa. Hizkuntzei dagokienez, zalaparta sortu du gaztelaniari, hizkuntza koofizialei eta lege-babesa duten hizkuntzei buruzko hogeita hemezortzigarren xedapen gehigarriaren azken idazketak. Idazketa berrian aurretik jasota zegoen '*gaztelania eta hizkuntza koofizialak komunikazio-hizkuntzat hartzen dira araudi aplikagarriaren arabera*'

delako esaldia kendu dute. Zalaparta handia sortu da, baina juridikoki eztabaidagarria izan da hori kentzeak ondorio bereziturik eragiten duen ala ez.

Horrekin batera, gogoratzeko modukoak dira otsailean Espainiako Gobernuak Lurralde Politikarako ministroak esandakoak. Hain zuzen ere, Estatuko administrazioa langileei berezko hizkuntzen derrigorrezko ezagutza ezin ezar dakiekeela esan zuen, bakar-bakarrik merezimendu gisa baloratzea iradokiz.

Eremu administratiboen azterketari lotzen bagatzaizkio, **Euskal Autonomia Erkidegoan** hauteskunde-urtea izan da. Gainera, pandemiak eragindako atzerapenaren ondorioz urtearen zati handi batean jarduneko gobernua egon da.

Iazko urtearen hondarrean, azken Gobernu Kontseiluan hain zuzen, onartu zuten **Euskara Eremu Sozioekonomikoan Sustatzeko Plana**. Euskara lan munduan sustatzea da planaren xedea, baina arlo bakoitzean lortu beharreko helburu neurgarriak ere zehaztu dituzte. Horrela, euskararen ezagutzari lotutako helburuak, erabilera sustatzekoak eta kontsumitzaileen eskubideen ingurukoak jasotzen ditu planak.

Halaber, sei helburu estrategiko aipatzen dira planean: hizkuntza-paisaia eta ingurune digitalean eragitea, euskara zerbitzu-hizkuntza bilakatzea, langileen euskara-gaitasuna hobetzea, gizartearen aktibazioa lortzea, enpresetan euskararentzat arnasmune gehiago sortzeko aukerak zabaltzea eta akordioak lortzea.

Bestalde, **helduen euskalduntzearen** eremuan, diru-partiden igoerak izan badira ere, kezkatu gaitu euskararen ezagutza bermatzeko lege-proposamenak aurrera egin ez izana. Izan ere, Kontseiluaren ustez, lege batek eskubide hori jasotzeak are gehiago bermatuko du euskalduntze-prozesuaren doakotasuna.

Azkenik, aipagarria da hezkuntzaren eremuan ikasleek derrigorrezko hezkuntza amaitutakoan eskuratzen dituzten **hizkuntza-gaitasunen** inguruan zabaldu diren kezkak. ISEIren ebaluazio diagnostikoaren emaitzak publikoak ez diren arren, iazko abenduan hedabide batek zenbait datu kezkagarri aurreratu zituen. Horrekin lotuta, urrian EAEko Eskola Kontseiluak D ereduan ikasleek lortzen dituzten gaitasunei buruzko txosten bat aurkeztu zuen egoera aztertzeko eta proposamenak egiteko.

Nafarroako Gobernuari dagokionez, iazko irakurketan aipatu genuen gehiengo sindikalak eta euskalgintzak berariaz eskaera egin geniola gobernuari. Hain zuzen, gobernuari Nafarroako Justizia Auzitegiko Epaitegiak 103/2017 Foru Dekretuari zenbait sindikatuk jarritako helegitearen gainean emandako epaiari kasazio-helegitea jar ziezaiola. Izan ere, irmo bihurtzen zenean, dekretuak jasotzen zituen elementu aurrerakoiak bertan behera geratuko ziren.

Eskaerari erreparatu ez arren, iragarri zuen euskarari buruzko **araudi berria** prestatzen ari zela. Urtea joan da ordutik, eta oraindik ez dago indarrean inolako araudirik;

ondorioz, epaiak jasotzen duena aplikatzen da.

Horrek lotura zuzena du, hain zuzen, Behatokiak eta Administrazioan Euskaraz taldeak egin duten salaketarekin. Finean, Nafarroako **lan-deialdi guztietan euskaraz jakiteak ez du punturik** ematen; soilik legeak ezarritako eremu euskaldunetan puntuatzen dute Osasunbideak eta Foruzaingoak. Berezko hizkuntzarekin hori egiten badute ere, frantsesa, ingelesa eta alemana bai puntuatzen dituzte foru erkidego osoan. Adibidez, Osasunbideko azken lan deialdian 283 mediku espezialistari ez zaie euskara kontuan hartuko; frantsesak, ingelesak edo alemanak, aldiz, bina puntu emango dizkie.

Bestalde, hezkuntzak ere toki nabarmena hartu du azken hilabeteotan. Bereziki, legeak ezarritako **eremu ez-euskaldunetan euskarazko lerro berriak ez** zabaltzeko Gobernuak hartutako jarrera irmoari erreparatuz gero; Mendigorriko kasua izan da oihartzun handiena hartu duena. Baldintza guztiak bete arren, D ereduaren herrian zabaltzea debekatu dute.

Mendigorriko afera auzitegian dago, eta, beraz, gobernuak ez die haurrei bermatu euskaraz ikasteko eskubidea herrian. Bestalde, izan da, ikastetxeak hala nahi arren, PAltik ezin atera egon den ikastetxerik; Castejongoa, esaterako.

COVID-19ak utzitako ondorioei erreparatzeko, Gobernuak *Nafarroa Suspertu plana* diseinatu zuen, eta gizarte eragileen iritzia eskatu zuen onartu aurretik. Kontseiluak, Behatokiarekin batera, *Nafarroa Euskaratik Suspertu* izeneko dokumentuan bildu zituen ekarpenak, orokorrak zein sektorekakoak. Ekarpenen oinarrian honakoa jaso nahi izan zen: etorkizuna parametro berritzaileago eta justuago batzuetan eraikitzeko borondatea badago, hizkuntza-eskubideen eta hizkuntza-bizikidetzaren gaiek ere zentralitatea hartu behar dute.

Azkenik, esan behar da COVID-19aren ondorioek baldintzatu dutela Bigarren Plan Estrategikoa aurreikusitako epeetan aurrera eramatea.



Mendigorriko gurasoak, Behatokiko zuzendariarekin batera, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren aurrean



Protokoloaren Herriko Etxeetako Garapenaren aurkezpen ekitaldia, Baionan

Ipar Euskal Herrian herriko etxeetako hauteskundeak izan dira. Horren bueltan, Kontseiluak eta Euskal Konfederazioak ondoko sei urteetan hizkuntza-politika planifikatuak abian ezartzeko erabaki ausartak hartzeko eskatu zieten hautagaiei; engaiamendu horren alde agertu ziren hamarnaka hautagai. Gainera, Kontseiluak eta Euskal Konfederazioak *Protokoloaren Herriko Etxeetako Garapena* jorratu, eta aurkeztu zuten, politikak planifikatzen laguntzeko.

Bestalde, aipatzeko modukoa da otsailaren 13an **Frantziako Batzar Nazionalak ondarea babesteko eta lurralde-hizkuntzak sustatzeko legea onartu** zuela.

Aste bat lehenago, proposamena Batzar Nazionaleko Kultura Gaien Batzordean aztertu zen, eta hasieran proposatutako bederatzi artikuluetatik bi besterik ez ziren onartu. Batetik, *Ondarearen kodean* hizkuntza-ondarea jasotzea erabaki zen, eskualde hizkuntzak barne. Horrela, estatuak zein tokiko erakundeek hizkuntza

horien irakaskuntzan, zabalkundean eta hedapenean lagunduko zutela jaso zen.

Bestetik, zerbitzu publikoek bermatu ahal izango dute seinaleetan, bide-seinaleetan, garraiobideetako azpiegituretan... eskualdeetako hizkuntzen itzulpena jartzea.

Zalantzarik ez dago bi neurri horiek, eta Euskal Herriari dagokionez, ez dutela aurrerapausorik edota berrikuntzarik ekartzen.

Hezkuntzari dagokionez, iazko irakurketaren ekitaldian aurreratu genuen bi egun beranduago Parisen izango ginela hezkuntza ministro Jean-Michel Blanquerrek egin nahi zuen erreforma zein bere hitzak salatzen. Aurten, kezkagarria izan da irakaskuntza publikoan murgiltze-bidearen esperimentazioari ekin nahi izan dion Hiriburuko eskolari debekua ezarri izana. Gurasoen nahia da, teoriarik, eskola publiko batean euskarazko murgiltze eredura jalgitzeko ezinbesteko baldintza; tokiko erakundeen sostengua ere irizpide

esanguratsua da. Biak ala biak izan arren, Hiriburuko udalerrian kokatzen den Baste Quieta ikastetxeko ama-eskolan %100 euskarazko esperientazio-egitasmoa plantan emateko proiektua atzera bota zuen Bordeleko Akademiak.

Horren aurrean, txalogarria izan zen zenbait instituzioren babesa, baina are esanguratsuagoa hiru sareetako hezkuntzako eragile nagusienek erakutsitako batasuna eta bateratasuna. Azkenean, Akademiak atzera egin behar izan du, erabakia berraztertuz.



Agurne Gaubeka (Behatokia) eta Paul Bilbao, murgiltze-eredua aldarrikatzeko Baionako manifestazioan

5

ONDORIOAK

Zalantzarik ez dago urteko irakurketaren ondorioek lotura zuzena dutela COVID-19ak utzi dituen ondorioekin.

Pandemiak berak euskararen normalizazioan eraginak izan baditu ere, kasu askotan, lehendik zetozen gabeziak eta euskararen normalizazio-prozesuaren izaera hauskorra inoiz baino ageriago utzi ditu.

Horregatik, atzera begira jarri gara, azken urteotan eginiko urteko irakurketetan esandakoak krisi berri honek baieztatu ote dituen, edo kontrara, berrikustea beharrezkoa ote den egiaztatzeko.

Horrela, 2017an Donostiako urteko irakurketako azterketek eta orduko testuinguruak ezartzen zituzten erronkek adierazten zuten hizkuntza-politiken sakoneko berrikuspena egin beharra zegoela; hizkuntza-politikak birpentsatu beharra zeudela. Are gehiago, adierazi genuen bazela garaia hizkuntza-politikak ikuspegi holistikoarekin eta integraztailearekin garatzekoa; bazela garaia administrazioa sail eta maila guztietan eraginez, benetako zeharkakotasunez garatuko diren hizkuntza-politikak abiatzekoa.

Hurrengo urtean, 2018an eta Bilbon, aldarrikatu genuen hizkuntza-politiken inguruan akordio zabalak landu beharra. Horretarako, *Euskal Herriko hizkuntza-politik(et)an akordioa(k)* erronka jarri genion geure buruari. Ariketa konplexuaren definizioari ekin zitzaion. Abiapuntu gisa inoizko adostasun sozialik handiena izan duen *Hizkuntza Eskubideak*

Bermatzeko Protokoloa hartzea erabakitzearekin batera, hizkuntza-politikarako proposamena zirriborratzeari ekin genion.

2019an Hernaniko Orona Gallery aretoan jauzia egiteko prest geundela adierazi genien bertaratutako hamarnaka eragile sozial, politiko, sindikal eta instituzionaletako ordezkariak. Zehazki, bi jauzi egin beharra aurreikusi genuen. Lehenik eta behin, adostasun sozial trinkoak eraikitzea, eta, ondoren, adostasun horiek baliatuz adostasun politikoen eremua jorratzea.

Lanketa horretan murgilduta geundela, mundua goitik behera aldatu duen testuingurua agertu zitzaigun. 2020a eta etorkizuna arras baldintzatu eta baldintzatuko dituen testuingurua.

Mundua aldatu da, eta inoiz baino abiada biziagoan aldatzen jarraitzen du. COVID-19ak eragindako krisiak begi bistan jarri digu zenbaterainokoa den euskal hizkuntza-komunitatearen zaugarritasuna.

Une honetan, beraz, aurreko urteetan eginiko irakurketek are eta zentzu handiagoa hartzen dutela esateko moduan gaude. Ondorio horiek berresten ditugu, eta, gainera, pandemiak mahai gainean jarritako behar eta erronkei aurreko egiteko, aurreko urteetan zirriborratutako bidean ibiltzen hasteko inoiz baino premia eta presa handiagoa dugulakoan gaude.

Izan ere, testuinguru berri eta aldakor honetan, euskararen normalizazioan aurrera egiteko ezinbestekoa da orain

arteko hizkuntza-politikak mahai gaineratu, horiek birpentsatu eta jauzi ausartak egitea. Eta jauzi horiek egungoak baino oinarri sendoagoak izango dituen hizkuntza-politikak garatzeko baliagarriak izango badira, inoiz baino nabarmenagoa da adostasun berriak eraikitzearen beharra.

Hizkuntzaren aferari gagozkiolarik, kontuan hartu behar da horrek duen zeharkakotasuna eta sahiestu ezina. Izan ere, erakundeok, eragileok eta herritarrok egunerokoan egiten ditugu hizkuntza-hautuak, eta hautu horiekin ari gara hizkuntza-politika jakin bat bideratzen.

Zentzu horretan, lehentasunez, egoera zaurgarrian gauden sektore eta kolektibo guztion ongizatea eta zaintza erdigunean jartzen duten eragileen arteko adostasun zabalak eraiki beharra ikusten dugu. Inoiz baino beharrezkoagoa baita komunitate eta sare sendoak osatzea, elkar zainduko dutenak.

Ekainaren 23an aurkeztu genuen *Geroa Euskaratik* adierazpenean esaten genuen: ziurgabetasunez betetako etorkizunaren aurrean, berdinzaleagoa, demokratikoagoa, kohesionatuagoa eta eskubideen bermean oinarritutako etorkizun berri baten aldeko apustua egiteko unea da. Izan eren, jakin badakigu oinarritzko eskubide bat bazterrean uzten den aldiro beste guztiak ere ahultzen direla.

Horregatik, *Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa* oinarri izanda eta hizkuntza-eskubideen bermea ipar hartuta, Kontseiluak gizarte eragileekin hizkuntza-politikaren inguruko adostasunak

eraikitze prozesuarekin jarraitzeko konpromisoa berresten du.

Testuinguru berriak eskatzen dituen beharretara egokitu nahi izan dugu adostasunen lanketa. Horrexegatik, lehenik eta behin, orubea partekatu eta adostu beharra ikusi dugu. Hartara, etorkizuna printzipio sendoen gainean eraiki behar dela ikusten dugu: bereizkeriari aurre egiteko eta elkarbizitzan sakontzeko, hizkuntza-eskubideen errespetua; hizkuntza-politikaren zeharkakotasuna; normalizazio-prozesuaren dimentsio soziala eta politikoa...

Horrekin batera, etorkizuna irudikatzen hasita, euskaldun guztientzat euskararen erabilera erosorako baldintzak egongo diren agertokia irudikatu eta eraiki beharra jarri dugu jomugan. Hizkuntza-eskubideak eremu guztietan bermatuko diren eta hala nahi duen edonork euskara erabiltzeko eragozpenik, bazterkeriarik edo edonolako deserosotasunik izango ez duen agertokia, hain zuzen. Herritarrek ahalegin berezirik egin behar izan gabe, euskara eroso erabiltzeko baldintzak izango dituenak.

Horretarako, bistan da, ezinbestean bi baldintza bete beharko dira: batetik, euskararen ezagutza unibertsalizatu beharko da; eta bestetik, euskara eroso erabiltzeko eremuak edo espazioak sortuz, garatuz eta elkarlotuz joan beharko dira.

Zalantzarik gabe, 2020an bizi izan dugun testuinguruak erakutsi digu garrantzitsua dela elkarren zaintzan eta lankidetzan sakontzea. Hizkuntzaren aferan ere, aipatu dugun bezala, erantzukizuna partekatua da.

Horrexegatik, lehen urrats gisa, adostasun sozial trinkoak osatzea lehenesten dugu. Aski ongi dakigu, gainera, adostasunak ezin ditugula atxikimendu eskaera hutsera mugatu. Gure irakurketak eragileekin partekatzeaz gain, elkar entzuteko ariketa egin nahi dugu, egiturazko aldaketak eragingo dituzten urratsak elkarrekin adostu eta aurrera eramateko.

Urte gogorra bizitzen ari gara: mundura eta etxera sartu zaigun pandemia honek zein ondorio utziko dituen oraindik ez dago aurreikusterik. Baina sinetsita gaude orain dela unea lankidetza eta adostasun berrien bidez urratsak egiteko. Eta, bagoaz!

2020



@kontseilua



@EuskararenKontseilua



@kontseilua